2.2.4.- La entidad colaboradora se compromete a sustentar la atención socioeducativa en programas individuales de atención, conforme a las necesidades sociales detectadas en la valoración y diagnóstico social especializado y a los objetivos marcados por los respectivos planes de atención personalizada.

Hirugarrena.- Hitzarmenaren zerbitzuari lotutako giza baliabideak eta arretarako ordutegia.

Tercera. - Recursos humanos vinculados al servicio objeto del convenio y horario de atención.

3.1. Giza baliabideak

3.1. Recursos humanos

Programak diziplina anitzeko talde bat izango du erabiltzaileei arreta emateko eta euren beharrezanetarako egokiak diren prestazioak emateko.

El programa contará con un equipo multidisciplinar para la atención de las personas usuarias y la provisión a las mismas de las prestaciones adecuadas a sus necesidades.

A.1 Zuzeneko arretarako baliabideak: eguneko zerbitzua

A.1 Personal de atención directa: servicio de día.

KATEGORIA / CATEGORIA	LANALDI% / %JORNADA	DEDIKAZIO% / %DEDICACIÓN
ZUZENDARIA (1) / DIRECTOR (1)	100	100
KOORDINATZAILEAK (ZUZENDARI-TALDEA) (3) / COORDINADORES (EQUIPO DIRECTIVO) (3)	100	100
GIZARTE LANGILEA (1) / TRABAJADORA SOCIAL (1)	100	100
GIZARTE HEZITZAILEA (10) / EDUCADOR/A SOCIAL (10)	100	100
GIZARTE HEZITZAILEA (1) / EDUCADOR/A SOCIAL (1)	74,50	100

A.2 Zuzeneko arretarako baliabideak: egoitza-zerbitzua.

A.2 Personal de atención directa: servicio de residencia.

KATEGORIA / CATEGORIA	LANALDI% / %JORNADA	DEDIKAZIO% / %DEDICACIÓN
ARDURADUNA (1)/ RESPONSABLE (1)	100	100
GIZARTE HEZITZAILEA (6) / EDUCADOR/A SOCIAL (6)	100	100
GIZARTE HEZITZAILEA (1) / EDUCADOR/A SOCIAL (1)	50	100





GIZARTE INTEGRATZAILEA (1) / INTEGRADOR/A SOCIAL (1)	100	100
GIZARTE INTEGRATZAILEA (1) / INTEGRADOR/A SOCIAL (1)	81	100

B. Kudeaketako baliabideak:

B. Personal de gestión:

KATEGORIA / CATEGORIA	LANALDI% / %JORNADA	DEDIKAZIO% / %DEDICACIÓN
ETXEKO LAGUNTZAILE (1) / AUXILIAR DOMESTICA (1)	100	100
ADMINISTRARI LAGUNTZAILE (1) / AUXILIAR ADMINISTRATIVA	54	100

Prestazio teknikoak (laguntza soziala, esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala...) egiten dituzten zuzeneko arretako langileek unibertsitateko goi-mailako titulazioa eta/edo esku-hartze sozialarekin lotutako lanbide-prestakuntza izan beharko dute, jarduera egokia ahalbidetzeko. Hala ere, baldintza hori betetzen ez duten hitzarmenaren xede den programari aldez aurretik lotutako profesionalen kasuan, egokitzapen-plan bat txertatuko da, baldintza hori lortzeko. Plan hori hitzarmena sinatzen denetik 3 hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

El personal de atención directa que realiza las prestaciones técnicas (acompañamiento social, intervención socioeducativa y psicossocial...) deberá poseer titulación superior universitaria y/o formación profesional relacionada con la intervención social que permita un adecuado desempeño. No obstante, en el caso de profesionales previamente vinculados al programa objeto del convenio que no cumplan este requisito, se incorporará un plan de adecuación tendente a su obtención que deberá ser presentado en el plazo de 3 meses desde la firma del convenio.

Talde horretaz gain, boluntarioak izango ditu, lanbide- edo lan-aurreko esku-hartzeei lotuta.

Además de este equipo, contará con voluntariado, vinculados a las intervenciones ocupacionales o prelaborales.

Ez dira barne hartzen ordezkapenak, oporregatik edo beste librantzengatik.

No están incluidas las sustituciones, por vacaciones o por otras libranzas.

Hezkuntza-taldeak erabiltzaileen beharretara egokitutako esku-hartzea bermatu beharko du une oro.

El equipo educativo deberá en todo momento garantizar la intervención, adecuada a las necesidades de las personas usuarias.

3.2.- Arreta-ordutegia.

3.2.- Horario de atención.

Erakundeak bermatu egingo du zerbitzua irekita egongo dela honako ordutegian

La entidad garantizará la apertura del servicio de día en los horarios siguientes





Astelehenak, astearteak, ostegunak, ostiralak eta larunbatak	09:00-17:30	Lunes, martes, jueves, viernes y sábado	09:00 – 17:30
Asteazkenak	09:00-19:00	Miércoles	09:00 – 19:00

Edonola ere, komunitatean bizitza independentea izateko laguntza aste osoan zehar emango da, erabiltzaileen beharrek bat eginez, eta dagokion xedapenean zehaztutako langileen zuzkidura erabiliz.

En cualquier caso, el apoyo a vida independiente en el medio comunitario se articulará a lo largo de toda la semana, de acuerdo con las necesidades que presenten las personas usuarias y haciendo uso de la dotación de personal detallada en la estipulación correspondiente.

Egoitzako zerbitzuak arreta profesionala urteko egun guztietako 24 orduetan emango duela bermatuko du.

El servicio residencial garantizará la atención profesional durante 24 horas, todos los días del año

3.3 eredia.- Informatzeko betebeharra:

3.3.- Obligación de información:

Erakunde laguntzaileak Inklusioa Sustatzeko Zerbitzura bidali beharko du hitzarmena sinatu eta berehala hitzartutako zerbitzuari lotutako pertsonen txanden eta jardueren plangintza, baita horietan egindako aldaketak ere.

La entidad colaboradora deberá remitir al Servicio para la Inclusión, con carácter inmediatamente posterior a la firma del convenio, la planificación de turnos de las personas profesionales y las actividades vinculadas al servicio convenido, y las modificaciones que se produzcan en los mismos.

Era berean, langileen zerrenda bat bidali beharko du, zuzeneko arreta emango duten langileak eta kudeaketako langileak bereizita, honako informazio honekin:

En idéntico sentido, deberá remitir una relación de personal, distinguiendo entre personal de atención directa y personal de gestión, con la información siguiente:

- Zuzeneko arreta emango duten langileen eta zerbitzuari esleitutako kudeaketako langileen izen-abizenak.
- Titulazioa.
- Zerbitzua emateko kontratatutako langilearen lanbide-kategoria.
- Urteko ordu-kopurua.
- Hitzartutako zerbitzuarekiko dedikazioaren ehunekoak.
- Nombre y apellidos del personal de atención directa y del personal de gestión asignado al servicio.
- Titulación.
- Categoría profesional conforme a la cual figura contratada para la prestación del servicio.
- Número de horas anuales.
- Porcentaje de dedicación e imputación al servicio convenido.

Gainera, erakunde laguntzaileak Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuari jakinarazi beharko dizkio zerbitzuari atxikitako langileei buruzko

Además, la entidad colaboradora deberá notificar al Servicio para la Inclusión cualquier modificación en la relación del





aldaketa guztiak.

Dokumentazio hori bidaltzen ez bada edo langileei buruzko aldaketak jakinarazten ez badira, hitzarmena deuseztatzeko arrazoiak sortu daitezke, hitzarmenaren urratzeak egiteagatik, hain zuzen ere.

3.4. Indarrean dagoen laneko araubidea betetzea:

Erakunde laguntzailea eta, kasuan kasu, hark prestazio osagarriak emateko kontratatutako entitateek indarreko sozietate eta laneko araudian xedatutakoa bete beharko dute.

Era berean, eta aplikazio eremuaren barruan dagoen heinean, erakunde laguntzailean kontraturik gabe ari direnek ere, praktiketako ikasleek esate baterako, arautegi hori bete beharko dute.

Horrez gain, boluntarioen kasuan, erakunde kolaboratzaileak Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen arabera egokituko du haien jarduera; bereziki, 6. eta 7. artikuluek ezarritakoaren arabera, boluntarioen eskubide eta betebeharrei buruzkoak, hurrenez hurren. Bestalde, lege horren 8. artikuluko 3. eta 4. zenbakiak ere bete beharko ditu, erakundeen eta boluntarioen arteko harremanari buruzkoak. Erabiltzaileei zuzeneko arreta ematea eta dagokion xedapenean zehaztutako prestazioak ematea, ezin izango da bakarrik boluntarioekin egin.

Nolanahi ere, erakunde kolaboratzaileak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 16. artikuluko 1. zenbakiko a) letran xedatutakoarekin bat etorritik, lan-baldintza duinak bermatu beharko dizkie kontratatutako soldatapeko langileei, aipatutako hitzarmen kolektiboak betetz, bai eta erakundeek kudeatutako erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko lan-baldintzei

personal vinculado al servicio convenido.

La falta de remisión de esta documentación o la falta de comunicación de cualquier modificación en la relación del personal podrá ser considerada como causa de resolución del convenio por incumplimiento del mismo.

3.4. Cumplimiento de normativa laboral vigente:

La entidad colaboradora y, en su caso, las entidades contratadas por ésta para la provisión de prestaciones complementarias estarán obligadas al cumplimiento de lo dispuesto en la normativa sociolaboral vigente.

Asimismo, y en la medida en que resulte comprendido dentro de su ámbito de aplicación, tal normativa será de obligado cumplimiento para con el personal de la entidad colaboradora cuya vinculación con la misma no se encuentre regulada por una relación contractual, como es el caso del personal en prácticas.

Igualmente, respecto a las personas voluntarias, la entidad colaboradora, adecuará su actuación a lo previsto en la Ley 17/1998, de 25 de junio, del Voluntariado y, en particular, a lo previsto en los artículos 6 y 7, relativos a los derechos y obligaciones del voluntariado respectivamente, y en los apartados 3 y 4 del artículo 8 relativo a la relación entre las organizaciones y el voluntariado. La atención directa a personas usuarias y la provisión de las prestaciones detalladas en la estipulación correspondiente únicamente no podrá proveerse a través de personal voluntario.

En todo caso, la entidad colaboradora, de conformidad con lo previsto en el apartado 1, letra a, del artículo 16 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi está obligada a garantizar unas condiciones laborales dignas al personal contratado remunerado, cumpliendo los convenios colectivos de referencia y las disposiciones normativas en relación con las condiciones laborales en la provisión de





buruzko xedapen arauemaileak bete ere. Era berean, boluntarioek baldintza egokietan jardun beharko dute.

servicios de responsabilidad pública gestionados por las organizaciones, así como unas condiciones adecuadas al personal voluntario.

6/2016 Legearen 16.1 artikuluko i) letran xedatutakoaren arabera, zerbitzuak baldintza onenetan eman beharko ditu eta langileen laneko segurtasun eta osasun arloko xedapenak betetzen direla bermatu beharko du zerbitzu sozialak ematean eta horietan jardutean.

De acuerdo con lo previsto en la letra i) del referido artículo 16.1 de la Ley 6/2016, debe prestar los servicios en las mejores condiciones y garantizar el cumplimiento de las disposiciones en materia de seguridad y salud laboral de las trabajadoras y trabajadores en la provisión y actividad de los servicios sociales.

lido beretik, artikuluko bereko j) letran ezarritakoari men eginez, gaitasun teknikoak, metodologia- eta antolaketa-baliabideak eta jarduteko gaitasuna etengabe hobetzea bultzatu beharko du.

En idéntico sentido, en virtud de lo dispuesto en la letra j) del mismo artículo, deberá fomentar la mejora continua de la capacidad técnica, recursos metodológicos y organizativos, y de su capacidad de actuación.

Aurrekoaren ondorioetarako, zerbitzua ematen duen entitateak Bizkaiko Foru Aldundiak eskatutako informazio oro eman beharko du, langileei aplikatuko zaizkien lan baldintzei dagokienez.

A efectos de lo anterior, la entidad prestadora del servicio deberá facilitar cuanta información le sea requerida por la Diputación Foral de Bizkaia sobre las condiciones de trabajo que apliquen a su personal.

Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak aintzat hartuko ditu langileen ordezkari legalek azaldu ditzaketen gorabeherak, baita langileek beraiek edo aipatutako betebeharrak ez betetzearen berri izan dezakeen beste edozein pertsona fisikok azaldutakoak ere. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak Gizarte Ekintza Saileko ikuskapen-zerbitzuak erabili nahiz kontrol jarduerak egin ahalko ditu Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren bidez, betiere, kontuan hartuta aipatutako gorabeheren ebazpena eskumena duen lan-ikuskapenari edo gizarte arloko jurisdikzio-ordenari dagokiola.

Asimismo, la Diputación Foral de Bizkaia atenderá las incidencias que pudieran trasladarle los y las representantes legales de los trabajadores y las trabajadoras, los propios trabajadores y trabajadoras o cualquier persona física que pudiera tener conocimiento de algún incumplimiento de las mencionadas obligaciones. Para ello, la Diputación Foral de Bizkaia podrá utilizar tanto los servicios de inspección del Departamento de Acción Social, como realizar actuaciones de control a través del Servicio para la Inclusión, siempre teniendo en cuenta que la resolución de las citadas incidencias deberá corresponder a la inspección de trabajo competente o el orden jurisdiccional social.

Azkenik, aditzera eman nahi da Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailak ez duela inolako lan-erlaziorik erakunde laguntzailearen langileekin, ez eta hark hitzartutako zerbitzua egiteko kontratatzen dituen enpresen langileekin ere.

Por último, se hace constar que la Diputación Foral de Bizkaia-Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad queda desvinculada a todos los efectos de cualquier relación laboral con el personal de la entidad colaboradora y/o de las empresas contratadas por ésta para la prestación del





servicio convenido.

Laugarrena.- Sartzeko betekizunak.

Erabiltzaileek, eskuratu ahal izango dute hitzartutako zerbitzua, baldin eta 59/2019 Foru Dekretuaren 51. eta 52. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

Bosgarrena.- Diru-sarrerak eta arreta eman beharreko kasu kopurua.

1. Hitzartutako zerbitzuko diru-sarrerak eta esku-hartzea 59/2019 Foru Dekretuaren 46. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat gauzatuko dira.

2. Hitzartutako zerbitzuaren izaera kontuan hartuz, hauek dira arreta jaso dezaketen kasu kopuruak:

- Bakarrik eguneko zerbitzua jasoko dutenak:

- **HAMAZORTZI (18) kasu**

- Arreta konbinatuko kasuak (eguneko zerbitzua eta egoitzazko zerbitzua):

- **ZAZPI (7) kasu.**

Erabiltzaileen beharren arabera, kopuru hori aldatu ahal izango da, betiere, arretan beharrezkoa den espezializazioa, eskainitako prestazio teknikoaren tipologia eta beharrezko intentsitatea doitu.

Hori guztia, aurretik hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak erabakia hartu ondoren, bederatzigarren xedapenean araututa dagoena.

Kasu kopurua aldatzeak, erabakiz gero, ez luke ekarriko hitzarmenaren baldintza ekonomikoak aldatzea.

Seigarrena.- Azpikontratazioa

Azpikontratazioa prestazio osagarriei dagokienez baino ezingo da egin.

Ondorio guztietarako, Bizkaiko Foru

Cuarta- Requisitos de acceso.

Podrán acceder al servicio convenido las personas usuarias, que cumplan los requisitos detallados en los artículos 51 y 52 del Decreto Foral 59/2019.

Quinta.- Ingresos y número de casos objeto de atención.

1. Los ingresos y la intervención en el servicio convenido se realizarán conforme a lo establecido en los artículos 46 y siguientes del Decreto Foral 59/2019.

2. Teniendo en cuenta la naturaleza del servicio convenido, el número de casos que pueden ser objeto de atención es el siguiente:

- Casos de atención exclusiva desde el servicio de día:

- **DIECIOCHO (18) casos.**

- Casos de atención combinada (servicio de día y servicio residencial):

- **SIETE (7) casos**

En caso de que las necesidades de las personas usuarias así lo exijan dicho número podrá verse modificado, calibrando siempre la especialización necesaria en la atención, la tipología de prestaciones técnicas ofertadas y la intensidad requerida.

Todo ello, previo acuerdo de la comisión de seguimiento del convenio, regulada en la estipulación novena.

Esta modificación del número de casos, de acordarse, no supondría una alteración de las condiciones económicas del convenio.

Sexta.- Subcontratación

La subcontratación solo podrá recaer sobre prestaciones complementarias y/o accesorias.

La Diputación Foral de Bizkaia queda





Aldundiak ez du inolako lan-harremanik erakunde laguntzailearekin eta/edo hark zerbitzua emateko kontratatutako enpresekin.

desvinculada a todos los efectos de cualquier relación laboral de la entidad colaboradora y/o de las empresas subcontratadas por esta entidad para la prestación del servicio.

Zazpigarrena.- Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak

Séptima.- Obligaciones y compromisos asumidos por las partes

7.1.- Erakunde kolaboratzailearen betebeharrak orokorrak

7.1.- Obligaciones generales de la entidad colaboradora

Erakunde kolaboratzaileak betebeharrak hauek edukiko ditu:

La entidad colaboradora vendrá obligada a:

1. Zerbitzua hitzarmen honen arabera emateko behar diren jarduerak guztiak egitea.
2. Aplikatu beharreko araudiaren arabera aurkeztu behar dituen baimenak eta erregistro guztiak eskatu eta izapidetzea.
3. Jasotako zenbatekoak hitzartutako zerbitzua emateko soilik erabiltzea, eta ezin izango da giza baliabiderik ez baliabide ekonomikorik erabili hitzarmenaren xedeaz bestelako helburuetarako.
4. Seigarren klausulan jasotako izapidea betetzen ez duten kasuak ez dute arretarik jasoko, eta instalazioei ezin zaie eman hitzarmenaren xedea ez den beste erabilera bat.
5. Hitzarmen honi lotuta kanpoko proiektua duen jarduerak orotan, zerbitzuaren foru titulartasuna, Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzazioa eta baliabidearen izaera publikoa agertzea. Betebeharrak horren barruan, ikusgai jarri behar dira Bizkaiko Foru Aldundiaren izena eta logotipoa. Azken hori, aldundiaren anagramak eta erabakiko den testuak osatzen dute, indarreko diseinuaren arabera.

1. Realizar todas las actuaciones necesarias para la prestación del servicio conforme al presente convenio.
2. Solicitar y tramitar todas las autorizaciones y registros a que estuviere obligada en razón de la normativa que le sea aplicable.
3. Destinar las cantidades percibidas, exclusivamente, a la prestación del servicio conveniado, no pudiendo destinarse ningún recurso humano ni económico a fines distintos al del objeto del convenio.
- 4.- No podrán ser objeto de atención casos cuyo ingreso no haya seguido el trámite previsto en la cláusula sexta, ni se podrá dar a las instalaciones un uso distinto al del objeto del convenio.
5. Hacer constar en cualquier actividad que, relacionada con el presente convenio, tenga proyección exterior, la titularidad foral del servicio, la financiación de la Diputación Foral de Bizkaia y el carácter público del recurso. Esta obligación incluirá la necesidad de hacer visible la denominación y logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia, siendo éste el formado por el anagrama de la Diputación acompañado del texto que se determine en su momento y de acuerdo con el diseño vigente.

Hala, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi instituzionala agerraraziko da

Así se incluirá la imagen institucional de Diputación Foral de Bizkaia en los





hitzarmenaren xede den zerbitzuak informazioa eta publizitatea helarazteko erabiliko dituen karteletan, oroigarri plaketan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoen edo ikus-entzunezko baliabideetan, eta, hala badagokio, komunikabideetan edo mintzaldi publikoetan parte hartzerakoan berariaz aipatuko da, baita hitzarmenaren xedeari lotutako pareko eraginkortasuneko bestelako neurrietan ere. Anagrama ikusgarri egongo da, zentroaren barneko aldean eta kanpoan.

carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales en los que se publicite o informe del servicio objeto del convenio y, en su caso, se realizará mención específica en las participaciones que se lleven a cabo en medios de comunicación o en intervenciones públicas u otras medidas que resulten adecuadas al objeto del convenio y de eficacia equivalente. El anagrama deberá figurar visible tanto en el exterior como en el interior del centro.

6. Egoitza eta ordezkari bat Bizkaian izatea; ordezkariak hitzarmenak, fakturak, jakinarazpenak eta hitzarmen honetatik eratorritako izapidetze oro sinatzeko nahikoa botere izan beharko du.
 7. Halaber, hitzartutako zerbitzuak emateko baldintzen jarraipena eta kontrola egitea eta egiaztapena erraztea Bizkaiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailari, Gizarte Ekintza Saileko Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzuak eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak bertako jarduerak egitea barne.
 8. Era berean, egiaztapen eta kontrol jardueretan lankidetzan jardun beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzen Sailak hala erabakiz gero.
 9. Bizkaiko Foru Aldundiari hitzarmenak dirauen bitartean eta xede berbererako jasotako dirulaguntza edo laguntza mota ororen berri ematea.
 10. Pertsona erabiltzaileei eman beharreko arretan zein mantentze-kostuetan eragina izan dezakeen edozer gertatuz gero, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari horren berri emateko konpromisoa hartu du erakunde laguntzaileak, aldez aurretik nahiko
6. Mantener una sede y un representante en Bizkaia con poderes suficientes a efectos de suscripción de convenios, firma de facturas, notificaciones y cuantos trámites sean derivados del presente convenio.
 7. Facilitar, asimismo, al Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad el seguimiento, control y verificación de las condiciones de prestación de los servicios convenidos, incluyendo actuaciones *in situ* tanto por parte del Servicio de Inspección y Control del Departamento de Acción Social, como por parte del Servicio para la Inclusión del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.
 8. Asimismo, deberá colaborar en las actuaciones de verificación y control que, en su caso, pueda llevar a cabo el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia.
 9. Notificar a la Diputación Foral de Bizkaia las subvenciones o ayudas de cualquier tipo que se reciban durante la vigencia de este convenio y que se refieran a su mismo objeto.
 10. La entidad colaboradora se compromete a comunicar, con la suficiente antelación, al Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad cualquier eventualidad que pudiera repercutir tanto en la atención a las personas usuarias como en los costes de mantenimiento.





denboraz.

Horrez gain, baliabidearen kokapenaren gaineko edozein aldaketa proposamen ere jakinaraziko dio

Asimismo, comunicará cualquier propuesta de cambio relativo a la ubicación del dispositivo.

11. Aseguruak:

- Erakunde laguntzaileak berezko du egiten duen jarduera eta, beraz, bere jarduneko zerbaitek erantzukizuna badakar, berak bakarrik bereganatuko du.
- Erakunde laguntzaileak erantzukizun zibileko aseguru sinatu beharko du oro har hitzarmenaren xede den zerbitzurako, kasu honetan gutxienez 250.000,00 euroko estaldurarekin, hitzartutako zerbitzuak ematek ondorioztatutako erreklamazioak (zerbitzua ematen duen lokaleko kalteengatiko erreklamazioak eta/edo jarduerari atxikitako lokalaren eta ondasunen jabetzaren eta/edo erabileraren ondoriozkoak, dagokionaren arabera, barne) zein erakunde laguntzaileko langileek programa ematean titulazio ofiziala eskatzen duen edozein jardueratik ondorioztatutako erantzukizun zibilak bermatzeko. Aseguru horrek zerbitzua egitearen eta betebeharrak oro har garatzearen ondorioz hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteengatik eska daitezkeen zuzeneko, zeharkako eta/edo ondoriozko kalteak bermatuko ditu, inolako erreserbarik gabe. aseguruaren barnean hirugarrentzat joko dira Bizkaiko Foru Aldundia, zerbitzuko erabiltzaileak, langileak, boluntarioak eta, hala denean, entitate laguntzaileak azpikontratutako erakundeak (haren zerbitzuan lan egiten duten langileak barne).

12. Gizarte Zerbitzuei buruzko Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 59.1. artikuluan ezarri denaren arabera, ekimen pribatuko erakundeek, Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatuta egoteaz gain, baimen administratiboa behar dute

11. Seguros:

- La actividad que desarrolla la entidad colaboradora es propia de ella y, en consecuencia, la responsabilidad derivada del ejercicio de dicha actividad es asumida íntegramente por ella.
- La entidad colaboradora vendrá obligada a suscribir con carácter general para el servicio convenido, un seguro de responsabilidad civil, en el presente caso con una cobertura mínima de 250.000,00 €, con objeto de asegurar las reclamaciones derivadas de la prestación de los servicios convenidos (incluyendo las reclamaciones por daños al local en donde se presten y/o la derivada de la propiedad y/o uso del local y bienes afectos a la actividad, según corresponda), así como las responsabilidades civiles derivadas de cualquier actividad del personal de la entidad colaboradora para la que se requiera titulación oficial, que asegure, sin reservas, cuantos daños directos e indirectos y/o consecuenciales puedan serle exigibles por posibles afecciones a terceros derivados de la ejecución del servicio y desarrollo general de sus obligaciones. Dentro del seguro tendrán también la consideración de terceros tanto la Diputación Foral de Bizkaia como la persona usuaria del servicio, el personal empleado, el personal voluntario y, en su caso, las entidades subcontratadas (incluido el personal a su servicio) de la entidad colaboradora.

12. A tenor de lo dispuesto en el artículo 59.1 de la Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, las entidades de iniciativa privada requerirán, además de su inscripción en el Registro de Servicios Sociales, la correspondiente autorización





gizarte zerbitzuak egiteko eta hornitzeko, eta, gainera, euren izaeraren eta motaren arabera betekizun materialak, funtzionalak eta pertsonalekoak bete behar dituzte.

Bigarren idatz-zatian ezarri da erakunde pribatuek, behar bezala inskribatuta eta baimenduta egoteaz gainera, homologazioa behar dutela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako gizarte zerbitzuetan aritzeko.

Azkenik, 59.3. artikuluan ezarri da homologatzea alde aurreko ezinbesteko betekizuna dela herri administrazioek erakunde pribatuak kontratatu ahal izateko gizarte zerbitzuak egiteko, bai eta horretarako itunak egiteko ere. Nolanahi ere, homologazioa lortzeak ez dakar berekin ituna ez kontratua eskatzeko eskubidea, ezta lankidetzaren hitzarmena ere.

Gaur egun oraindik gizarteratzearen arloko homologazio arautegirik ez dagoenez, hitzarmen hau zuzenbideari lotzen zaiola ulertuko da, eta, beraz, beronen xede diren zentroa eta zerbitzua erakunde eskumendunaren gutxieneko eta baterako baldintzez noizbait ematen dituen arauetara ez moldatzea hitzarmena suntsiarazteko kausa izango da.

13. Erakunde laguntzaileak bere proposamenetan eta horien aurkezpenetan ezin dute erabili hizkera sexistarik. Era berean, hitzarmenak iraun bitartean, hizkera ez sexista erabili beharko da behin betiko idatzizko agiri guztietan eta agiri digital guztietan, eta irudiak ere ez sexistak izan beharko dira, eta erabilitako rolak eta estereotipoak albo batera utzi beharko dira. Era berean, pertsonen buruzko estatistika guztiak sexuen arabera banatu beharko dira eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen

administrativa para poder intervenir en la provisión y prestación de servicios sociales, previo cumplimiento de los requisitos materiales, funcionales y de personal que les correspondan en función de su naturaleza y tipología.

Asimismo, en su apartado 2 establece que las entidades privadas, debidamente inscritas y autorizadas, requerirán la previa homologación para intervenir en la prestación de servicios sociales integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Por último, el artículo 59.3 dispone que la previa homologación constituirá un requisito preceptivo para que una entidad privada pueda concertar, contratar, o, en su caso, convenir la provisión de servicios sociales con una administración pública. En todo caso, la obtención de la homologación no otorga el derecho a exigir ni la concertación ni la contratación, ni, en su caso, el convenio de colaboración.

No existiendo a fecha actual la citada normativa de homologación en materia de inclusión social, se entiende ajustado a derecho el presente convenio, siendo causa de resolución del mismo, la no adaptación del centro y servicio objeto del presente convenio a la futura normativa que emane del órgano competente, relativa a las condiciones mínimas básicas y comunes aplicables a la homologación.

13. La entidad colaboradora, en la elaboración y presentación de sus respectivas propuestas, deberá hacer un uso no sexista del lenguaje. Asimismo, a lo largo de la vigencia del convenio deberá hacer un uso no sexista del lenguaje en cualquier documento definitivo escrito o digital, y de las imágenes y superación de roles y estereotipos utilizados. Igualmente, deberá desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere, así como todo ello al amparo de los artículos 2.3 y 2.4, del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de





aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 2.3 eta 2.4 artikuluekin bat eginez, errespetatu beharreko printzipio orokorrak beteko dira. Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundian indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Foru Plana eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua bete beharko dira.

marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse, así como del Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres vigente en la Diputación Foral de Bizkaia y la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

14. Entitateak, ahal duen neurrian, hitzarmen honen markoan antolatuko diren zerbitzu, hitzordu edo jardueretan egon daitezkeen oztopo arkitektonikoak eta komunikazioak desagerrarazteko lan egingo du eta horretan kolaboratuko du.

14. La entidad, en la medida de sus posibilidades, trabajará y colaborará para eliminar las barreras arquitectónicas y de comunicación que pudieran presentarse en los servicios, eventos o actividades que organice en el marco del presente convenio.

15. Erakunde kolaboratzaileak Bizkaiko Lurralde Historikoko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan jasotako publizitate aktiborako betebeharrak eta informazio publikorako eskubidea beteko ditu.

15. La entidad colaboradora cumplirá con las obligaciones de publicidad activa y derecho de acceso a la información pública recogidas en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia del Territorio Histórico de Bizkaia.

Era berean, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 16. artikuluko 1. zenbakiko b) letrak ezarritakoari jarraituz, erakunde kolaboratzaileak gardena izan beharko du eta kontuak eman beharko ditu, barruan zein kanpoan, Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak eta aipatutako foru arauak ezarritakoa betez, bidezkoa bada.

Asimismo, de conformidad con lo previsto en el apartado 1, letra b, del artículo 16 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi, deberá ser transparente y rendir cuentas, interna y externamente, de acuerdo, en su caso, con lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y la citada Norma Foral.

16. Erakundeak Gizarte Segurantzari dagozkion betebeharrak beteta eduki behar ditu, bai eta zerga betebeharrak ere.

16. La entidad deberá estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social, así como de las obligaciones tributarias.

17. Ezin du debeku, ezintasun edo bateraezintasun kausarik izan, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (9/2017, azaroaren 8koa) 71. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzak

17. No estará incurso en causa de prohibición, incapacidad o incompatibilidad, cumpliendo los requisitos contenidos en los artículos 71 y siguientes de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector





bete behar ditu.

Público.

18. Hitzarmenak irauten duen bitartean ez du IFZ galduko, ezta behin-behinean ere.
19. Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituenak, xedatutakoaren arabera, itunpeko erakundeek beren prestazioa eman beharko dute herritarrek bi hizkuntza ofizialetan arreta jasotzeko duten eskubidea errespetatuz.
18. No perderá, ni siquiera con carácter provisional, el NIF durante la vigencia del Convenio.
19. De conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral, las entidades concertadas deberán proporcionar su prestación respetando el derecho de la ciudadanía a ser atendido en las dos lenguas oficiales.

7.2.- Erakunde laguntzailearen laneko eta prebentzioko betebeharrak

7.2.- Obligaciones laborales y de prevención de la entidad colaboradora

1. Erakunde laguntzaileak lan harremani, gizarte segurtasunari eta laneko higiene eta segurtasunari dagokienez indarrean dauden betebeharrak guztiak betetzeko konpromisoa hartu du, bereziki, hitzarmen honen xede den baliabidean zerbitzuak emango dituzten langileei dagokienez; ondorio guztietarako erakunde laguntzailearen mende dago. Erakunde horrek erantzun beharko du zuzenean hitzarmen hau indargabetzearen ondorioz sor daitezkeen kalte-ordainen aurrean.
2. Betebeharrak hori eskatuko zaie hitzarmen honen esparruan azpikontrata litezkeen entitateei ere.
3. Zehazki, entitate kolaboratzaileak langileen bizitza, integritatea eta osasuna kaltetu dezaketen arriskuak ahalik eta hobekien prebenitzeko beharrezkotzat jotzen dituen edo derrigortuta dagoen laneko segurtasun eta higienearen alorreko neurriak hartuko ditu. halaber, eta jarduera hasi aurretik, indarreko araudiak ezarritako lan arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak beteko ditu.
1. La entidad colaboradora se compromete a cumplir todas las obligaciones vigentes en materia de relaciones laborales, seguridad social e higiene y seguridad en el trabajo, especialmente en lo referente al personal que presta servicios en el dispositivo objeto del presente convenio, que depende a todos los efectos de la entidad colaboradora. La entidad deberá responder directamente de las indemnizaciones que pudieran causar como consecuencia de la resolución del presente convenio.
2. Dicha obligación resultará exigible respecto de las entidades que puedan subcontratarse en el marco de la ejecución del presente convenio.
3. En particular la entidad colaboradora adoptará cuantas medidas de seguridad y salud en el trabajo fueran obligatorias o necesarias en orden a la más perfecta prevención de los riesgos que puedan afectar a la vida, la integridad y la salud de las personas trabajadoras. Cumplirá, asimismo, las obligaciones en materia de prevención de riesgos laborales establecidas por la normativa vigente y antes del inicio de la actividad.





4. Horrez gain, erakunde kolaboratzaileak:
- a) Indarrean dagoen legeriaren araberako antolakuntza prebentiboko modalitate bat hartuko du.
 - b) Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratuko du. horretarako, laneko arriskuen prebentziorako plan bat ezarri eta aplikatuko du, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko 2. artikulua arabera.
 - c) Ezarritako segurtasuneko neurriak betetzen direla ziurtatuko du.
 - d) Kasuan kasu, bere arriskuen ebaluazioa dela-eta prebentzioko baliabide bat egoteko eskatzen duten zeregin eta/edo jardueren zerrenda bat edukiko du.
 - e) Beharrezkoa bada, norbera babesteko ekipamendua eman zaiela justifikatzen duten agiriak edukiko ditu.
 - f) Zerbitzuan parte hartuko duten enpresa azpikontratatzen eta langile autonomoen zerrenda aurkeztuko dio Bizkaiko Foru Aldundiari.
4. Asimismo, la entidad colaboradora:
- a) Adoptará una modalidad de organización preventiva acorde con la legislación vigente.
 - b) Integrará la prevención de riesgos laborales en el sistema general de gestión de la empresa mediante la implantación y aplicación de un plan de prevención de riesgos laborales según el artículo 2 del Reglamento de los Servicios de Prevención, aprobado por el Real Decreto 39/1997 de 17 de enero.
 - c) Asegurará el control del cumplimiento de las medidas de seguridad establecidas.
 - d) Dispondrá, en su caso, de una relación de tareas y/o actividades que por la evaluación de sus riesgos exigen la presencia de un recurso preventivo.
 - e) Dispondrá de justificante de la entrega de equipos de protección individual, que, en su caso, fueran necesarios.
 - f) Presentará a la Diputación Foral de Bizkaia la relación de empresas subcontratistas y personas trabajadoras autónomas que vayan a participar en el servicio.
5. Erakunde kolaboratzaileak jardueraren gauzapean zati bat azpikontratatu badu, azpikontratei nagusiari eskatzen zaion dokumentazio bera eskatu beharko die eta haren kopia bat eman beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari.
5. Si la entidad colaboradora subcontratara parte de la ejecución de la actividad, deberá exigir a las subcontratas la misma documentación que se requiere a la principal y entregar una copia a la Diputación Foral de Bizkaia.
6. Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu erakunde kolaboratzaileak lan arriskuen prebentzioaren arloko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.
6. La Diputación Foral de Bizkaia adoptará las medidas que considere necesarias para comprobar el cumplimiento de los requisitos en materia de prevención de riesgos laborales por parte de la entidad colaboradora.





7. Bizkaiko Foru Aldundiak aipatu betebeharrak guztiz betetzen direla bermatzeko behar diren neurriak hartzeko eskatu eta araudian aurreikusitako ekintza guztiak egin ahalko ditu.

7. La Diputación Foral de Bizkaia podrá reclamar la adopción de las medidas necesarias para garantizar la total observancia de las obligaciones señaladas y ejercitar todas las acciones previstas en la normativa.

7.3.- Bizkaiko Foru Aldundiaren betebeharrak eta konpromisoak.

7.3.- Obligaciones y compromisos de la Diputación Foral de Bizkaia

Hitzarmen honen ondorioetarako, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiko Sailak, honako konpromisoak hartzen ditu:

A los efectos establecidos en el presente Convenio el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a:

- 2025eko aurrekontu ekitaldiaren kargura dagokion xedapenean jasotako zenbatekoa ematea, baimendutako aurrekontu kreditua gainditu gabe.
- Hitzartutako zerbitzuan egonaldi baimenei edo ezeztatzei buruzko ebazpenen jakinarazpena bidaltzea, horrelakorik egonez gero.
- Programaren egikaritzea koordinatzea eta garapenaren jarraipena egitea, albo batera utzita hitzarmenaren Jarraipen Batzordeari buruz adierazitakoa.
- Etengabeko koordinazio- eta elkartze-espazioak ematea, beste zerbitzu batzuekin konexioa, jarraitutasuna eta koordinazioa izate aldera, esku-hartzea integrala, dimentsio aniztuna eta diziplina artekoa izateko eta sarean lan egiteko dinamikarako.
- Entitate laguntzaileak horri eragiten dioten prozesuen diseinuan aktiboki parte hartzen laguntzea.

- Aportar con cargo al ejercicio presupuestario 2025 las cantidades señaladas en la estipulación correspondiente, que no superará el crédito presupuestario autorizado.
- Remitir notificación de cada una de las resoluciones de autorización o cancelación de estancia en el servicio convenido que, en su caso, puedan dictarse.
- Coordinar la ejecución del programa y realizar el seguimiento de su evolución, sin perjuicio de lo señalado respecto de la comisión de seguimiento del convenio.
- Facilitar espacios de encuentro y coordinación permanente de cara a la conexión, continuidad y coordinación con otros servicios, en una dinámica de trabajo en red e intervención integral, multidimensional e interdisciplinar.
- Facilitar la participación activa de la entidad colaboradora en el diseño de los procesos que le afecten.

Zortzigarrena.- Alderdiak beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak

Octava.- Consecuencias por incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por las partes

Erakunde kolaboratzailearen jardunean ez betetzeak hautemanez gero, hitzarmen hau suntsiaraz daiteke hamalagarren klausulan aurrez ikusitako ondoreekin. Horrez gain,

Los incumplimientos detectados en la actuación de la entidad colaboradora podrán dar lugar a la resolución del presente convenio, con los efectos previstos en su





Bizkaiko Foru Aldundiak zehatzeko ahalmena erabili ahalko du, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen VII. tituluko II. kapituluaren arabera, eta, era berean, hitzarmenaren xedekak betetzeko erabili ez diren kopuruak itzultzeko prozedura hasi ahalko du.

cláusula decimocuarta, así como al ejercicio, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, de la potestad sancionadora de conformidad con el Capítulo II del Título VII de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, así como el inicio del procedimiento de reintegro de cantidades no destinadas al cumplimiento de los fines del convenio.

Bederatzigarrena.- Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta hartutako konpromisoei aplikatzekoak

Novena.- Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos

9.1.- Jarraipen eta Kontrolerako Batzordea

9.1.- Comisión de Seguimiento y Control

Baliabidearen funtzionamenduaren jarraipena egiteko, eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta erakunde laguntzailearen artean koordinazioa errazteko, batzorde tekniko bat eratuko da, eta esku hartzen duen alde bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute.

Con el fin de realizar un seguimiento del funcionamiento del dispositivo, así como de facilitar la coordinación entre el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad y la entidad colaboradora, se constituye una comisión técnica que está integrada por dos representantes de cada una de las partes intervinientes.

Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren kasuan, Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuko buruzagitzak eta balorazioaren eta orientazioaren arloan eskumena duen ataleko buruzagitzak osatuko dute, eta hura ez badago, atal bereko arduradun teknikoak ordezkatu ahal izango du. Batzordeko burua Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuko burua izango da.

En el caso del Servicio para Inclusión estará integrada por la jefatura del Servicio para la Inclusión y por la jefatura de la sección competente en materia de valoración y orientación, quien en caso de ausencia podrá ser sustituida por la responsable técnica de la misma sección. La presidencia de la comisión corresponderá a la jefatura del Servicio para la Inclusión.

Jarraipen Batzordea urtean behin batuko da, aurretik Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak deialdia egingo duenak eta hitzarmenari buruzko akordioak bertaratuen gehiengoarekin erabakiko dira; berdinketak egonez gero, presidentek kalitate bozka izango du.

La comisión de seguimiento se reunirá con una periodicidad anual, previa convocatoria realizada al efecto desde el Servicio para la Inclusión, adoptándose los acuerdos que afecten al convenio por mayoría de las personas asistentes; en caso de empate, el presidente contará con voto de calidad.

Bizkaiko Foru Aldundiak egindako finantza ekarpenen jarraipena Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak egingo du, horren zuzaparen xedapenean zehaztutakoarekin bat eginez, eta batzordeak, jarraipen hori egiteko agindua eman ahal izango die zerbitzuaren teknikariei.

El seguimiento de las aportaciones financieras realizadas por la Diputación Foral de Bizkaia corresponderá al Servicio para la Inclusión, de conformidad con lo señalado en la estipulación séptima del mismo, pudiendo delegar la comisión la realización de dicho seguimiento en el personal técnico del Servicio.

Batzordeko bilerei buruzko aktak Inklusioa

La redacción de las actas relativas a las





Sustatzeko Zerbitzuko ordezkariak idatzi beharko dituzte.

reuniones de la comisión corresponderá a las personas representantes del Servicio para la Inclusión.

Halaber, eginiko jarduketak egiaztatze aktak egiteko ardura izango du Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak hitzarmena bukatzen denean.

El Servicio para la Inclusión se responsabilizará de la elaboración de la pertinente acta de comprobación de las actuaciones acordadas, a la finalización de la vigencia del convenio.

9.2.- Alderdi bakoitzak egin beharreko jarduketak justifikatzeko eta kontrolatzeko epea eta modua

9.2.- Plazo y forma de justificación y control de las actuaciones a realizar por cada una de las partes

Gastuen justifikazioa

Justificación de gastos.

Erakundeak, modu egokian justifikatu beharko du foru funtsen erabilera; justifikazio hori egiteko, kontu ikuskariak egindako txosten bat aurkeztuko da. Ikuskari hori Kontuen Ikuskarien Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko da, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuaren menpekoa dena, gehenez ere **2026ko apirilaren 30eko** epean, eta, gainera, erregistro orokorrean edo Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregistro eskuordetu batean ere inskribatuta egon beharko da.

La entidad deberá justificar adecuadamente el destino dado a los fondos forales; dicha justificación se realizará mediante la presentación de un informe de persona auditora de cuentas inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditorías de Cuentas, en el plazo máximo del **30 de abril de 2026** en el registro general o cualquier registro delegado del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

Txostena entitateak sinatutako kontu justifikagarriarekin batera joan beharko da, eta honako hau jaso beharko du:

El informe deberá acompañar a la cuenta justificativa suscrita por la Entidad que contendrá:

a) Hitzarmena bete dela justifikatzeko jarduketa-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita, **IV ERANSKIN**eko ereduaren arabera.

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento del convenio, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos, conforme al modelo del **ANEXO IV**

b) Egindako jardueren kostua frogatzen duen memoria ekonomikoa. Honakoak jasoko dira bertan:

b) Una memoria económica justificativa de los costes de las actividades realizadas, que contendrá:

b.1. Jarduerari egotzitako diru-sarreraren eta gastuen egoera.

b.1. Un estado de gastos e ingresos imputados a la actividad.

b.2. Aurreko puntuko gastuen egoera osatzen duten partida bakoitzeko, jardueraren gastuen zerrenda sailkatu bat, hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, bidalketa data eta ordainketa zehaztuz.

b.2. Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos del punto anterior, una relación clasificada de los gastos de la actividad, con identificación del acreedor, del documento, su importe, fecha de





emisión y pago.

b.3. Kostu orokor/zeharkako eta zuzen banagarriak banatzeko irizpideak azaltzea, aurreko b.1 atalean aipatutakoari dagokionez gehitu badira.

b.3. Explicación de los criterios de reparto de los costes generales/indirectos y costes directos repartibles en caso de que se hayan incorporado en la relación a que se hace referencia en el apartado b.1 anterior.

b.4 Aurreko b.1 puntuko diru-sarreraren egoera osatzen duten partida bakoitzeko jardura finantzatu duten laguntza, diru-sarrera edo baliabideen zerranda, jatorria eta zenbatekoa adieraziz.

b.4. Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos del punto b.1 anterior, una relación de las ayudas, ingresos o recursos que hayan financiado la actividad, con indicación de su importe y procedencia.

b.5 Hiru aurrekontuak, baldin eta gastuak gainditu egiten badu SPKLren (9/2017) arabera kontratu txikirako aurreikusitako gastua, pertsona onuradunak eskatu beharrekoa edo posible egiten ez duten kausen justifikazioa.

b.5. Los tres presupuestos en el caso de que el gasto supere el importe previsto para el contrato menor según la LCSP (9/2017) que debe solicitar la persona beneficiaria o la justificación de las causas que no lo hacen posible.

b.6. Erabili gabeko soberakinik badago, diru kopuru hori eta sortu dituen korrituak itzultzeko ordainketa-gutuna.

b.6. En su caso, la carta de pago de reintegro, en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos.

Hitzarmen honen **V. ERANSKIN** gisa erantsi da Ogasun eta Finantza Sailak egindako gomendioen dokumentua; bertan, kontu-auditoretza egin duen pertsonaren justifikazio-kontuaren egiaztapen- eta berrikuspen-txostenaren irismena eta edukia jaso da, bai eta justifikazio-kontuaren eredu bat, baita **VI. ERANSKINA** ere, *Justifikazio-kontuaren egitura eta edukia, memoria ekonomikoa prestatzeko*.

Se adjunta como **ANEXO V** al presente convenio documento de recomendaciones elaborado por el Departamento de Hacienda y Finanzas en relación con el alcance y contenido del informe de revisión y verificación de la cuenta justificativa a emitir por la persona auditora de cuentas, así como **ANEXO VI** “Estructura y contenido de la cuenta justificativa” para la elaboración de la memoria económica”.

Aurrekoa gorabehera, Bizkaiko Foru Aldundiak justifikazio partzialak aurkezteko eskatu ahal izango dio erakunde kolaboratzaileari, bai eta beharrezkotzat jotzen dituen ekonomia-, finantza- eta kontabilitate-kontrolerako jarduketak egiteko ere, paragrafo honetan aipatutako epea baino lehen.

No obstante lo anterior, la Diputación Foral de Bizkaia podrá exigir a la entidad colaboradora la presentación de justificaciones parciales, así como realizar las actuaciones de control económico, financiero y contable que estime necesarias, con anterioridad al plazo referido en este apartado.

Hamargarrena.- Datu pertsonalak

Décima.- Datos de carácter personal

Hitzarmen honetan datuen babesari buruz

La normativa aplicable al presente Convenio





aplikatu beharreko araubidea Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB araubidea da, pertsona fisikoak datu pertsonalen babesari dagokionez babesteari buruzkoa, eta, horrez gain, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta **II ERANSKIN** gisa gehitutako hitzarmen honen datuak babesteko alorrari buruzko dokumentazio juridikoa ere bete beharko dira. Dokumentazio horretan, hitzarmen honen datu pertsonalak tratatzeko Zuzendaritza Nagusi Arduraduna identifikatzen da.

Hamaikagarrena.- Indarraldia

Hitzarmen honen **indarraldia 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31era artekoa** izango da, baina, iraupena hori bukatu aurretik eta betiere dagokion ekitaldirako aurrekontu kontsignazioa egonez gero, bi alderdiak ados baldin badaude, hitzarmena **luzatzea** erabaki **ahal** izango da. Luzapenak iraupen berekoa edo laburragoa izan beharko du, gehienez ere luzapen **bat (1)** egitea posible izango delarik.

Hala ere, hamahirugarren xedapenean aurreikusitako azkentze-kausaren bat gertatzen bada, BFAK hitzarmena gehienez sei (6) hilabetez luzatzea erabaki ahal izango du, hitzarmenaren indarraldia amaitu eta ondoren, erabiltzaileen arretaren jarraitutasuna eta eskubideak bermatzeko, pertsona horiek beren beharrezkoak diren bitartean.

Hamabigarrena.- Hitzarmenaren prezioa

Prezioa eta ordainketa.

Hitzarmenaren prezioa, gehienez, **1.678.092,00 eurokoa (BEZetik salbuetsita)** izango da, honako aurrekontu partidaren kargura:

0903/231110/23708, PEP 2019/0065

Ordainketa mugaeguneratutako hilekoen bidez gauzatuko da, aldez aurretik ordainketa

en materia de protección de datos es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales, y la Documentación jurídica en materia de protección de datos del presente Convenio que se acompaña como **ANEXO II**. En esta documentación se identifica la Dirección General Responsable de tratamientos de datos personales para este Convenio.

Undécima.- Vigencia

El presente convenio tendrá una **vigencia** abarca el periodo comprendido entre el **1 de enero** y el **31 de diciembre de 2025**, si bien, antes de la finalización del plazo previsto y siempre y cuando exista la correspondiente consignación presupuestaria para el ejercicio de que se trate, **podrá** acordarse, de mutuo acuerdo, la **prórroga** del mismo por una duración igual o inferior, siendo **una (1)** el número máximo de prórrogas.

No obstante lo anterior, si se dan cualquiera de las causas de extinción previstas en la estipulación decimotercera, la DFB podrá acordar la prórroga del convenio durante un plazo máximo de seis (6) meses siguientes a la finalización de la vigencia del mismo, para garantizar el continuo de atención y los derechos de las personas usuarias, mientras se lleva a cabo el traslado de dichas personas al centro más adecuado a sus necesidades.

Duodécima.- Precio del convenio

Precio y pago.

El precio del convenio ascenderá a un máximo de **1.678.092,00 euros, exento de IVA**, con cargo a la partida presupuestaria siguiente:

0903/231110/23708, PEP 2019/0065.

El pago se efectuará por mensualidades vencidas, previa presentación de los





(faktura) justifikatzeko dokumentuak (bertan hileko kostu osoa azalduko da) aurkeztu ondoren. Ordainketa honako zenbateko hauen arabera egingo da:

- **139.841,00** euro, **BEZetik salbuetsita.**

Hitzarmena egikaritzeari egotz dakizkiokeen gastutzat joko dira, indarreko araudiarekin bat behar bezala justifikatuak daudenak eta hitzarmena likidatzean ordainduak daudenak, betiere, beharrezkoak badira eta zalantzarik gabe izaerari eta hitzarmenaren xedearen ohiko garapenari erantzuten badizkiote.

Bereziki ez dira hitzarmenarekin lotutako gastutzat hartuko honako hauek:

- Ondasun higiezinetan egindako obrak, funtsezko kontserbazio- eta mantentze-obrak izan ezik.
- Ondasun higiezinak erosteko/haietan obrak egiteko maileguren finantzaketa,

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira zerbitzua emateko erabiliko den higiezinaren errentamendu-gastuak, ondasun higiezinaren amortizazioarekin lotutako gastuak eta higiezina erostearekin lotutako maileguren (hipoteka-maileguren edo bestelako) finantza-gastuak.

Bestalde, gastu orokorrei dagokienez, hitzartutako zerbitzua ematearekin lotutako gastuak izan beharko dute nahitaez. Gastu orokorren eta zeharkako gastuen zenbatekoa ez da hitzarmenaren %12 baino handiagoa izango.

III. ERANSKIN gisa, hitzartutako zerbitzuari lotutako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua atxiki da.

Zerbitzua emateari lotutako aurrekontu-partidetan esleitutako zenbatekoak aldatu egin daitezke (hitzarmenaren zenbateko osoa aldatu gabe) edo beste partida edo helburu batera bideratu, baldin eta, zalantzarik gabe,

correspondientes documentos justificativos de pago (facturas), en los cuales constará el coste global del mes y que se corresponderá con el importe siguiente:

- **139.841,00 euros, exento de IVA.**

Se considerarán gastos imputables derivados de la ejecución del convenio, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, estén pagados a la fecha de liquidación del convenio, sean necesarios y respondan de manera indubitada a la naturaleza y al normal desarrollo del objeto del convenio.

En particular, no se consideran gastos vinculados al convenio:

- Obras en bienes inmuebles, a excepción de las esenciales para la conservación y mantenimiento.
- Financiación de préstamos destinados a la adquisición/obras de bienes inmuebles,

Serán imputables los gastos de arrendamiento del inmueble destinado a la prestación del servicio; la amortización del bien inmueble, así como los gastos financieros de préstamos (hipotecarios o de otra índole) vinculados a la adquisición del inmueble, conforme a los criterios señalados en la normativa contable.

Por su parte, en cuanto a los gastos generales, deberán ser necesariamente gastos relacionados con la prestación del servicio convenido. El importe de los gastos generales e indirectos no excederá del 12% del coste total del convenio

Se adjunta como **ANEXO III** el presupuesto de gastos e ingresos vinculados al servicio convenido.

Las cantidades consignadas en las distintas partidas presupuestarias vinculadas a la prestación del servicio pueden ser modificadas (sin alteración del importe total del convenio) o destinadas a otra partida o





hitzarmenaren xedearakin bat badatoz.

finalidad, siempre y cuando éstas respondan indubitadamente al objeto del convenio.

Aldaketa hori erakundeak eskatu beharko du, hitzarmenaren jarraipen-batzordearen esparruan, eta dagokion aktan jasoko da.

Dicha modificación deberá ser solicitada por la entidad y acordada en el marco de la comisión de seguimiento del convenio, dejando constancia en el acta correspondiente.

Zuzkidura ekonomiko nahikoa izatea.

Suficiencia de la dotación económica.

Lankidetzat hitzarmenerako erreserbatutako hornidura ekonomikoa halaxe ezarri da indarrean dagoen Bizkaiko Gizarte Esku Hartzeko Sektoreko hitzarmen kolektiboko lan baldintzak betetzeko nahikoa dela aurreikusi delako.

La dotación económica reservada para el convenio de colaboración se ha establecido bajo la premisa de su suficiencia para garantizar el cumplimiento de las condiciones laborales del Convenio Colectivo del Sector Intervención Social de Bizkaia vigente.

Bizkaiko Foru Aldundiak aurreko baldintzak betetzea zainduko du, eta, bereziki, baldintza ekonomikoei dagokienez, batez ere soldata/ordua parametroari erreparatuko dio, zerbitzua emango duen entitateak aplikatuko duen soldata/ordu erreala parametroarekin eta erreserba ekonomikoa egiteko aurreikusitako soldata/ordua parametroarekin alderatuz.

La Diputación Foral de Bizkaia velará por el cumplimiento de las anteriores condiciones y, en particular, con relación a las económicas, atenderá fundamentalmente al parámetro salario/hora, comparando el salario/hora real aplicado por la entidad prestadora y el salario/hora contemplado para realizar la reserva económica.

Aurrekoaren ondorioetarako, erakunde kolaboratzaileak Bizkaiko Foru Aldundiak eskatutako informazio oro eman beharko du, langileei aplikatuko zaizkien lan baldintzei dagokienez.

A efectos de lo anterior, la entidad colaboradora deberá facilitar cuanta información le sea requerida por la Diputación Foral de Bizkaia sobre las condiciones de trabajo que apliquen a su personal.

Baldintza etengarria

Condición suspensiva.

Hala ere, eta 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 56. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, jasota geratzen da hitzarmen honen eraginkortasuna dagokion ekitaldian hitzarmenaren ondorioz sortutako eta hitzarmenetik eratorritako betebeharrak ekonomikoak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende geratzen dela.

No obstante, y en aplicación de lo dispuesto en el artículo 56, del Decreto Foral Normativo 5/2013, se hace constar que la efectividad de este convenio queda sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones económicas derivadas del mismo en el ejercicio correspondiente.

Hamahirugarrena.- Hitzarmena azkentzea

Decimotercera.- Extinción del convenio

13.1.- Hitzarmen hau azkenduko da edo bere xede diren jarduketak betetzean edo suntsiarazteko arrazoiak gertatzean.

13.1.- El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución.





13.2.- Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoi dira:

- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.
- Alderdi guztien ahobatezko erabakia.
- Erakunde laguntzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak ez betetzea, bat-batean gertatu arren.
- Agiri honetan zehaztutako eta alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea, justifikaturiko ez betetzea gertatzen denean izan ezik (hori behar bezala egiaztatu behar da eta hala ulertu beharra dago, Jarraipen Batzordearen beren beregiko erabakiaren bidez dagozkion klausulan ezarria). Gainera, hitzarmena desagiten bada, izandako kalte guztien ordaina emateko eta jasotako zerbitzua berrezartzeko betebeharra izango du azkentzea eragin duenak.
- Alderdietako batek hitzarmenari uko egitea. Bi hilabete (2) aurretik jakinarazi behar du.
- Epailak hitzarmena deuseztatu dela adieraztea.
- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako arrazoiak edozein egotea.

Hamalargarrena.-
suntsiaraztearen ondorioak

Hitzarmena desagiteak berekin ekarriko du likidazioak egitea, alde bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak erabakitzeke.

Hitzarmenaren indarraldia bukatzen denean edo xedea guztiz bukatutakoan aurrekontuko

13.2.- Serán causas de resolución del presente convenio las siguientes:

- El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- El mutuo acuerdo por ambas partes.
- El incumplimiento, aunque sea sobrevenido, por parte de la entidad colaboradora de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidas por alguna de las partes en el presente documento, salvo en el supuesto de incumplimiento justificado que deberá ser debidamente acreditado y apreciado mediante acuerdo expreso de la Comisión de Seguimiento establecida en su cláusula correspondiente, y determinará la obligación por parte del causante de indemnizar todos los daños y perjuicios que se deriven y de restituir las prestaciones recibidas.
- La denuncia del convenio por alguna de las partes, debiendo mediar un preaviso con dos meses (2) de antelación.
- Decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.
- La concurrencia de cualquiera de las causas previstas en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Decimocuarta.- Efectos de la resolución de los convenios

La resolución de los convenios dará lugar a la liquidación de los mismos con el objeto de determinar las obligaciones y compromisos de cada una de las partes.

En el supuesto de que una vez agotado el plazo de vigencia del convenio o cumplido





gehieneko kopuruan soberakina badago eta, beraz, justifikatutako gastuak aurreikusitako gastua baino baxuagoak badira, erakunde laguntzaileak urteko likidazioa onartu beharko du.

Halaber, likidazioa egindakoan erakundeak egindako jardueren zenbatekoa gauzape hori finantzatzeko jasotako funtsak baino txikiagoa balitz, dagokion soberakina itzuli beharko lioke.

Hala ere, hitzarmena deuseztatzeko arrazoietako bat dagoenean betearazteko jarduerak badaude, aldeek, hitzarmenaren jarraipen, zaintza eta kontrol batzordeak proposatuta, erabaki ahal izango dute egiten ari diren jarduerekin jarraitzea edo ez, eta egokitzat jotzen dituzten jarduerak gauzatu beharko dituzte. Horretarako, luzatu ezin den epea ezarriko dute, eta hori igarotakoan, jardueri dagokien likidazioa egin beharko dute aurreko ataletan zehaztutako baldintzetan.

Hamabosgarrena.- Hitzarmena aldatzeko araubidea

Hitzarmen honen terminoak aldatzeko, alderdiak ados egon beharko dira, eta, horretarako, hitzarmen honetan araututako Jarraipen Batzordean erabakiak hartu beharko dira.

Hamaseigarrena.- Jurisdikzio eskumenduna

Hitzarmen hau administratiboa denez, beronen interpretazioari, aldatetari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sortzen diren auziak jarraipen batzordeak ebaziko ditu, edo, akordiorik ezean, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuak. Ebazpenak administrazio bidea amaituko du eta beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legean xedatutakoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salaren aurrean,

íntegramente el objeto del mismo, se produzca un remanente sobre la cantidad máxima presupuestada de forma que los gastos justificados sean inferiores a la cantidad prevista, la entidad colaboradora habrá de proceder a la aceptación de la liquidación anual resultante.

Asimismo, si de la liquidación resultara que el importe de las actuaciones ejecutadas por la entidad fuera inferior a los fondos recibidos para financiar dicha ejecución, dicha entidad deberá reintegrar a la Diputación Foral de Bizkaia el exceso que corresponda.

No obstante lo anterior, si cuando concorra cualquiera de las causas de resolución del convenio existen actuaciones en curso de ejecución, las partes, a propuesta de la comisión de seguimiento, vigilancia y control del convenio, podrán acordar la continuación y finalización de las actuaciones en curso que consideren oportunas, estableciendo un plazo improrrogable para su finalización, transcurrido el cual deberá realizarse la liquidación de las mismas en los términos establecidos en los apartados anteriores.

Decimoquinta.- Régimen de modificación del convenio.

La modificación de los términos del presente convenio requerirá de mutuo acuerdo de ambas partes, alcanzado dentro del marco de la Comisión de seguimiento regulada en el presente convenio.

Decimosexta.- Jurisdicción competente

Dada la naturaleza administrativa del convenio, las cuestiones litigiosas surgidas sobre interpretación, modificación, resolución y efectos de este convenio serán resueltas por la comisión de seguimiento y, en caso de falta de acuerdo, por la Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas resoluciones pondrán fin a la vía administrativa y contra las mismas habrá lugar a recurso contencioso-administrativo, conforme a lo dispuesto en la Ley reguladora de dicha Jurisdicción, ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia





beren-beregi uko eginda alderdiei legokiekeen beste edozein foruri. Aurretik esandakoa gorabehera, egokitzat irizten den beste edozein errekurtsu aurkeztu ahal zaingo da.

Hamazazpigarrena.- Epeak

Hitzarmen honetan zehar aipatu diren egunak egun naturalak direla ulertuko da, salbu eta lanegun gisa espresuki aipatzen diren kasuak.

Hamazortzigarrena.- araubide juridikoa

Hitzarmen hau administratiboa da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluaren xedatzen denaren arabera eta bertan xedatutakoari ez ezik, zuzenean edo analogiaz aplika daitezkeen Administrazio Zuzenbideko arauak ere lotu behar zaie eta, bereziki, hauetan xedatutakoari:

- Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte zerbitzuei buruzkoa eta, bereziki, 69. artikuluetan eta hurrengoetan dauden arauak, hitzarmen eta akordioei buruzkoak, baita ere erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak eta jarduteko printzipio orokorrei buruzko xedapenak.
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroa arautzen duena.
- Maiatzaren 21eko 59/2019 Dekretua, gizarteratzearen alorrean espezializatutako esku-hartze prozedura arautzen duena.

Hitzarmenaren ekonomia eta aurrekontu araubideari dagokionez, hauetan xedatutakoa aplikatuko da:

- Abenduaren 3ko 5/2013 Foru

de Euskadi, con renuncia expresa a cualquier otro fuero que a las partes pudiera corresponder. Sin perjuicio de lo que antecede, podrá ejercitarse cualquier otro recurso que se estime ante la Ley.

Decimoséptima.- Plazos

Salvo que expresamente se indique su carácter de días hábiles, se entenderá que, los días que se mencionan a lo largo del convenio, son días naturales.

Decimooctava.- Régimen jurídico del convenio

El presente convenio tiene naturaleza administrativa conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho administrativo que, directa o por analogía, pudieran resultar de aplicación, y, en particular, por lo dispuesto en:

- La Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, y en especial los preceptos contenidos en el artículo 69 y siguientes, relativos a los convenios y acuerdos, así como las disposiciones relativas a los principios generales de actuación y a los derechos y obligaciones de las personas usuarias.
- El Decreto 185/2015, de 6 de octubre, por el que se regula la cartera de servicios y prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- El Decreto 59/2019, de 21 de mayo, por el que se regula el procedimiento de intervención especializada en materia de inclusión social.

Resulta aplicable, en lo que respecta al régimen económico-presupuestario del convenio, lo dispuesto en:

- El Decreto Foral Normativo 5/2013





Dekretu Arauemailea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onesten duena.

- 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa. Dekretu hori aldatu zuen Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duenak.

Halaber, erakunde laguntzaileak hauetan jasotako xedapenak bete beharko ditu:

- 62/2002 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Gizarte zerbitzuen foru erregistroa sortzen duena. Bereziki, 5.3 artikulua bete behar da. Beraren b) atalak erregistro horretan izena emateko exijitzen du, Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmenak egin ahal izateko, salbu eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin beren-beregi adosten bada betekizun hori bete beharretik salbustea.
- Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituena; baita hura garatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako araudia ere.

Azkenik, hauek ere aplikatuko dira:

- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapenari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzkoa.
- Otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua, Bizkaiko gardentasunari buruzkoa, zehazki, haren 2. eta 9. artikuluetan

de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria.

- El Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

La entidad colaboradora habrá de observar, asimismo, las disposiciones recogidas en:

- El Decreto Foral 62/2002, de 26 de marzo, por el que se crea el Registro Foral de Servicios Sociales, siendo en particular de obligada observancia el artículo 5.3 en cuyo apartado b) se exige la inscripción en dicho Registro para la suscripción de Convenios con la Diputación Foral de Bizkaia, salvo que expresamente se exceptuase de este requisito por acuerdo de esta Diputación Foral de Bizkaia.
- El Decreto 64/2004 de 6 de abril, del Gobierno Vasco, por el que se acuerda la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas, así como en la normativa que, de cara al desarrollo de la misma, se apruebe por la Diputación Foral de Bizkaia.

Por último, será de aplicación:

- La Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.
- La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, en particular, lo establecido en los





xedatutakoa.

- 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunekoak.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datuak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko.
- Uztailaren 13 ko 29/1998 Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea.

artículos 2 y 9 de la misma.

- La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres
- La Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.
- La Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contenciosos-Administrativa.

Hitzarmen honetan aurrez ikusten ez diren gai guztietan hauek aplikatu beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, Aurrekontuei buruzko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, eta aplikatu beharreko gainerako xedapen guztiak.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006 General Presupuestaria, y su Reglamento, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau formalizatu eta sinatzen dute.

Y en prueba de conformidad, se formaliza y firma el presente convenio.

Azken parte-hartzaileak sinatutako data hartuko da hitzarmen honen eraginkortasun-datatzat.

Se establece como fecha de eficacia del presente convenio, aquella en la que hubiera firmado la última persona interviniente en el mismo.

Erakunde laguntzailearen ordezkaria / El representante de la entidad colaboradora: D. Juan Luis Fuentes Nogales Jauna

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatua/ La diputada foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. M^a TERESA LAESPADA MARTÍNEZ.



I. ERANSKINA

ANEXO I

ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK

CONDICIONES DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO

Hauek dira zerbitzua emateko baldintzak:

Quedan fijadas las siguientes condiciones de prestación del servicio:

Lehenengoa.- Gutxieneko betekizun funtzionalak eta materialak

Primero.- Requisitos materiales y funcionales mínimos

Baldintza material eta funtzional hauek bete beharko dira

Deberán cumplirse los requisitos materiales y funcionales mínimos siguientes:

1. KOKAPENA ETA INGURUNEA

1. UBICACIÓN Y ENTORNO:

1.1. Zerbitzua udalerraren erdigunean kokatuta egon beharko da edo, ezinezkoa bada, erdigunearekin garraio publiko bidez zuzen komunikatutako leku batean. Posible ez bada, erabiltzaileei garraiorako beste aukera bat eman beharko zaie.

1.1. El servicio deberá estar emplazado en una zona céntrica del municipio o, en su defecto, en un lugar debidamente comunicado con el centro mediante transporte público. Si ello no fuera posible, se deberá facilitar a las personas usuarias otro medio alternativo de transporte.

1.2. Baliabideak inguru segurua, osasungarria eta zaratarik gabea eskaini behar die erabiltzaileei

1.2. El dispositivo deberá brindar a las personas usuarias un entorno seguro, saludable y no ruidoso

1.3. Etxebizitzan higiezin arrunt batean baldin badago, ez da hitzartutako zerbitzu gisa identifikatuko ez eraikinaren kanpoaldean, ez postontzian, ezta sarrerako atean ere, hitzarmenean jasotako iragartzeko betebeharrak ere bete beharko direlarik.

1.3. En el caso de estar ubicado en un edificio ordinario de viviendas, no estará identificado como servicio convenido ni en el exterior del edificio, ni en el buzón ni en la puerta de entrada, sin perjuicio del cumplimiento de las obligaciones de publicidad recogidas en el convenio.

2. EGITURA:

2. ESTRUCTURA:

2.1. Zentro mota honi aplikatu beharreko arau xedapenetan aurreikusitako eraikigarritasun, segurtasun eta bizigarritasun baldintzak bete beharko dira.

2.1. Deberán cumplirse las condiciones normativas de edificación, seguridad y habitabilidad contempladas en las disposiciones normativas aplicables al tipo de centro.

2.2. Mantentze- eta kontserbazio-

2.2. Deberán contar con estructuras en





egoera onean dauden egiturak izan beharko ditu.

buenas condiciones de conservación y mantenimiento.

3. HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURA OZTOPOAK:

3. BARRERAS ARQUITECTÓNICAS Y URBANÍSTICAS:

3.1. Indarrean dagoen irisgarritasun araudia bete beharko da.

3.1. Se deberá cumplir la normativa de accesibilidad vigente.

3.2. Nolanahi ere, espazio fisiko irisgarria izan beharko da, bai barrutik, bai kanpotik, baita desgaitasun maila jakin bat duten pertsonentzat ere.

3.2. En cualquier circunstancia, constituirá un espacio físico accesible, tanto externa como internamente, para personas con cierto grado de discapacidad.

3.3. Fisikoki erabiltzaileen baldintzetara egokituta egon beharko da, baita garatuko diren jardueretara ere.

3.3. Deberá estar físicamente adaptado a las condiciones de las personas usuarias así como a los actividades que se desarrollen.

4. SUTEEN KONTRAKO BABES NEURRIAK:

4. MEDIDAS DE PROTECCIÓN CONTRA INCENDIOS:

4.1. Gutxieneko izaeradun arau hauek bete beharko dira:

4.1. Se deberán cumplir las siguientes normas de carácter mínimo:

- Suteak sortzea saihesteko beharrezko prebentzio neurriak hartu beharko dira.
- Sua sortzen den egoeretarako langileen eta egoiliarren jokabide sekuentzia definitu beharko da.
- Eraikinaren eremuko ebakuazio moduak eta ibilbideak zehaztu beharko dira, eta, beharrezkoa bada, erabatekoak.
- Baliabideak iragarkien taula bat izan beharko du eta sutea gertatuz gero berehala egin beharrekoen laburpen bat jarri beharko da bertan, erraz ikusteko moduan.
- Langileei prestakuntza eman beharko zaie, prebentzio eta antzemateari, su egoeretan jokatzeko arauei eta zentroa ebakuatzeari dagokienez.

- Deberán asumirse las medidas de prevención necesarias para evitar la producción de incendios.
- Deberá definirse la secuencia de actuaciones del personal y personas residentes al declararse el fuego.
- Deberá determinarse las rutas y formas de evacuación de zonas del edificio o su totalidad en caso necesario.
- El recurso deberá contar con un tablón de anuncios, en el que figurarán, de forma fácilmente visible, un resumen de las actuaciones inmediatas en caso de incendio.
- Deberá formarse al personal en los aspectos tanto de prevención como de detección, en las normas de actuación ante el fuego y en la evacuación del centro.

4.2. Gutxienez su itzalgailu

4.2. Deberá estar dotado, como mínimo,





eramangarri BAT (1) eta larrialdietarako argia izan beharko ditu solairu bakoitzak.

5. ARGIZTAPENA:

Argiztapen eta aireztatze naturala eta zuzena izan beharko dute logeak eta erabiltzaileek ohiko moduan erabiltzen dituzten gainerako geak, bai egoitza baliabideetan, bai eguneko arreta zentroetan.

6. BEROGAILUA:

6.1. Berokuntza elementuak izan beharko ditu, segurtasun neurri egokiek, eta beti funtzionatu beharko dute giroak eskatzen duen tenperaturarekin.

6.2. Gas bidezko berogailuak erabiltzea debekatuta dago.

7. ZOLADURAK:

Zoruak erraz garbitzeko material ez irristakorrarekin egin beharko dira.

8. HIGIENE ZERBITZUAK:

8.1. Lau erabiltzaileko edo multzo bakoitzeko dutxa bat, komun bat eta konketa bat izan beharko ditu.

8.2. Logeletako zein partekatutako eremuetako komun eta bainugelek kanpotik desblokeatzeko botoidun kisketa izan beharko dute.

8.3. Eguneko zerbitzuan, gutxienez,aldi bereko arreta edo zatikatze 15 plaza bakoitzeko, konketa eta komuna egon beharko dira.

9. EREMU KOMUNAK:

Eremu komunak gutxienez 3,5 m² erabilgarriko azalera izan beharko dute erabiltzaile bakoitzeko. Eremu komunak jangelak, egongelak, jardueren gelak eta lanbideetakoak dira. Jangelak sukaldean

de UN (1) extintor portátil y de luz de emergencia por planta.

5. ILUMINACIÓN:

Se deberá disponer de iluminación y de ventilación natural y directa en las habitaciones así como en el resto de zonas utilizadas habitualmente por las personas usuarias, tanto en los elementos residenciales como en los de atención diurna.

6. CALEFACCIÓN:

6.1. Deberá estar dotado de elementos de calefacción, con medidas de seguridad adecuadas, que deberán funcionar siempre que la temperatura ambiente lo requiera.

6.2. Queda prohibida la utilización de estufas de gas.

7. PAVIMENTOS:

Los suelos serán de material fácilmente limpiable y no deslizante.

8. SERVICIOS HIGIÉNICOS:

8.1. Deberá contar con un inodoro, un lavabo y una ducha por cada cuatro personas usuarias o fracción.

8.2. Tanto los baños y aseos de las habitaciones como los situados en zonas comunes dispondrán de pestillo con botón de desbloqueo exterior.

8.3. En el caso del servicio de día, como mínimo, deberá contar con un inodoro y lavabo por cada 15 plazas de capacidad de atención simultánea o fracción.

9. ÁREAS COMUNES:

Los espacios comunes deberán tener una superficie mínima en su conjunto de 3,5 m² útiles por cada persona usuaria. Se considerarán espacios comunes las salas de actividades y ocupacionales,





integratuta baldin badaude, azalera osoari kendu egin beharko zaio sukaldearen eremuak okupatutakoa, eta horri metro bat gehitu behar zaio inguruan.

10. LOGELAK:

Zerbitzuaren egoitza alorrari dagokionez, logelek honako baldintzak bete beharko dituzte:

10.1 Lehentasunez, indibidualak izango dira. 14 m² baino gehiagoko espazioetan, logela bikoitzak egon ahalko dira.

10.2 Logelek gutxienez 7 m²-ko azalera izan beharko dute, komuna, hala badagokio, kanpo utzita.

10.3 Argiztapenak irakurtzeko eta lan egiteko aukera emango du. Horren haritik, argi orokorra eta gauerako argia izan beharko dute.

10.4 Logela orok, gutxienez, honako hau izango du:

- Ohe bat, gutxienez 90 cm-ko zabalera izango duena pertsona bakoitzeko.
- Armairu bat, gutxienez 0,65 m³ edukieraduna pertsona bakoitzeko.
- Ohe-mahai bat edo antzekoa, tiradera batekin, pertsona bakoitzeko.
- Desgaitasuna duten pertsonen arreta eman behar zaien kasuetan, ohe artikulatuak egon beharko dira.

11 DEKORAZIOA ETA EKIPAMENDUA:

11.1 Dekorazioak giro atsegina sortu beharko du, lasaitasun, segurtasun eta ongizate sentimendua eraginez erabiltzaileengan.

salas de estar y comedores. En el caso de que estos últimos estuvieran integrados en la cocina, deberá deducirse de la superficie total la ocupada por la zona de cocina a la que se habrá añadido un metro a su alrededor.

10. HABITACIONES:

En lo que respecta a la vertiente residencial del servicio, las habitaciones deberán cumplir los siguientes requisitos:

10.1. Serán preferentemente individuales. Para espacios de más de 14 m² serán posibles habitaciones dobles.

10.2. Las habitaciones tendrán una superficie mínima de 7 m², excluido, en su caso, el cuarto de aseo.

10.3. La iluminación permitirá la lectura y el trabajo. A este respecto, deberán contar con una luz general y otra de noche.

10.4. Toda habitación dispondrá, como mínimo, de:

- Una cama de anchura mínima de 90 cm por persona.
- Un armario con una capacidad mínima de 0,65 m³ por persona.
- Una mesilla de noche o similar que disponga de un cajón por persona.
- En el caso de atención a personas con discapacidad, deberá contarse con camas articuladas.

11. DECORACIÓN Y EQUIPAMIENTO:

11.1. La decoración deberá propiciar un ambiente acogedor, favoreciendo un sentimiento de tranquilidad, seguridad y bienestar de las personas usuarias.





11.2 Altzariak eta dekorazio elementuek nahikoa espazio utzi beharko dute, pilaketa sentrazioa saihesteko.

11.2. El mobiliario y los elementos decorativos deberán dejar un espacio suficiente, a fin de evitar la sensación de hacinamiento.

11.3 Egoitza zerbitzuan gutxienez telefono bat egon beharko da, bertako pertsona egoiliarrek konexioa izan dezaten kanpoaldearekin; nolana ere, hezkuntza edo tutoretza taldeak muga eta ikuskatzeak ezarri ahalko ditu, hala badagokio, eta behar bezala justifikatuta.

11.3. En el caso del servicio residencial, Se deberá disponer, al menos, de un teléfono que permita a las personas residentes la conexión con el exterior, sin perjuicio de las limitaciones o supervisión debidamente fundamentadas que, en su caso, deban ser establecidas por el equipo educativo o tutorial.

12 MANTENTZEA:

12. MANTENIMIENTO:

12.1 Programari lotutako zentroak, instalazioak eta altzariak mantentzea, zaintzea eta, beharrezkoa bada, konpontzea bereziki izango da kontuan, kaltetzea saiheste aldera, baita makinak, galdarak, instalazioak eta tresnak ere, eta nolabaiteko arriskua izan badezakete enpresa instalatzaile baimenduek eskusiboki manipulatu dituzte.

12.1. Se prestará especial atención al mantenimiento, conservación y reparación, en su caso, de los centros vinculados al programa, instalaciones y mobiliario, con objeto de evitar su deterioro, así como al conjunto de máquinas, calderas, instalaciones o instrumentos que, en el caso de poder entrañar algún riesgo potencial, deberán ser manipulados exclusivamente por empresas instaladoras autorizadas.

12.2 Higieztina eta bertako eremuak behar den maiztasunarekin garbitu eta desinfektatzea bermatuko da.

12.2. Se asegurará, con la frecuencia necesaria, la limpieza y desinfección del inmueble y dependencias.

13. OSASUN-ARRETA:

13.ATENCIÓN SANITARIA:

Osasun arloko arreta jasotzeko sarbidea erraztu beharko da, eta pertsona egoiliarrek aukeratutakoa errespetatzeko ahalegina egingo da. Nolanahi ere, erabiltzaile guztiek behar duten osasun laguntza jasotzen dutela bermatu beharko da, barruko edo kanpoko baliabideak erabiliz

Deberá facilitarse el acceso a la atención sanitaria, procurando respetar la elección efectuada por las personas residentes. En cualquier caso, se deberá garantizar que todas ellas reciban, por medios propios o ajenos, la atención sanitaria necesaria

Botika kutxa bat egon beharko da, eta gutxienez honako elementu hauek izan beharko ditu:

Deberá disponerse de un botiquín que, como mínimo, incluirá:

- artaziak
- tijeras
- termometroa
- termómetro





- | | |
|-----------------------------------|-------------------------------|
| - ur oxigenatua | - agua oxigenada |
| - azaleko antiseptikoa | - antiséptico dermatológico |
| - esparatrapua | - esparadrapo |
| - apositu esterilak | - apósitos estériles |
| - bendak | - vendas |
| - analgesikoak eta antipiretikoak | - analgésicos y antipiréticos |
| - kolirioa | - colirio |

14. DOKUMENTAZIOA, FITXATEGIAK ETA EKIPAMENDU TELEMATIKOA:

Bizkaiko Foru Aldundiak araubide esparrurik onesten ez duen bitartean, barneko araubidea izan beharko da, eta beharrezko publizitatea eta hedapena eman beharko zaizkio, hauek barne:

- Zerbitzuaren helburuak.
- Zerbitzuaren titulartasun publikoa eta Bizkaiko Foru Aldundiko erreferentziako pertsonen harreman profesionaletarako datuen identifikazioa.
- Edukiera (plaza kopurua).
- Zerbitzua jasotzen dutenen eta langileen eskubideak eta betebeharrak.
- Barne jardunbideko arauak.
- Zentroaren erabiltzaileek edo haien legezko ordezkarien parte-hartze demokratikorako bideak.
- Eskaintzen diren zerbitzuen prezioak, kasuan kasu.
- Erreklamazio eta iradokizunen

14.DOCUMENTACIÓN, ARCHIVOS Y EQUIPAMIENTO TELEMÁTICO:

En tanto en cuanto la Diputación Foral de Bizkaia no apruebe un reglamento-marco, se deberá disponer de un reglamento de régimen interno, al que deberá darse la debida publicidad y difusión, incluyendo:

- Objetivos del servicio.
- Titularidad pública del Servicio e identificación de los datos de contacto profesionales de las personas de referencia de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Capacidad (nº de plazas).
- Derechos y deberes de las personas usuarias y del personal.
- Normas de funcionamiento interno.
- Cauces de participación democrática de las personas usuarias o de sus representantes legales.
- Precios de los servicios que se ofrecen, en su caso.
- Procedimiento de sugerencias





prozedura.

- Arreta ordutegiak.

Araudi horren kopia bat iragarkien taulan agertu beharko da, erabiltzaileek ongi ikusteko moduko leku irisgarri batean, programari lotutako higiezin eta lokal guztietan. Horrez gain, horren kopia bat eman beharko zaie pertsona erabiltzaileei edo haien ordezkari legalari, sartu aurreko bisitan.

Barne araubideko araudia Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren eskura egon beharko du uneoro.

- Erabiltzaileek eskuragarri izan beharko dute iradokizun eta erreklamazioen liburua. Proposamenak eta kexuak zuzen erregistratzen direla bermatu beharko da, baita neurriak behar bezala hartu izana ere.
- Zerbitzua erabili duten pertsonen erregistroa eduki behar da, eguneraturik beti. Bertan beraien hurrenkera zenbakia, nortasun agiri nazionalaren zenbakia edo baliokidea, izen-deiturak, sartu diren eguna eta irten direnekoa, eta administrazio eta gizarte datu nagusiak agertu behar dira. Datu horiek guztiak isilpean gordeko dira.
- Ekipamendu telematikoa egon beharko da, gutxienez eskanerra eta ordenagailu pertsonala bilduko dituen, zentroaren berezko jarduna garatzeko beharrezko aplikazio informatikoak dituen eta, zehazki, aurreko puntuak aipatutako erregistroa mantentzeko neurrikoa. Horietarako sarbidea izatea mugatuta egongo da, informazioaren konfidentziasuna dela-eta.

y reclamación.

- Horarios de atención.

Una copia de este reglamento deberá ser expuesta en un tablón de anuncios que deberá situarse en una zona accesible para las personas usuarias, en cada inmueble o local vinculado al programa. Asimismo, se deberá proporcionar una copia del mismo a las personas usuarias, o a su representante legal, en la visita de preingreso.

El reglamento de régimen interno deberá ponerse en todo momento a disposición del Servicio para la Inclusión.

- Deberá existir un libro de sugerencias y reclamaciones a disposición de las personas usuarias, garantizándose el adecuado registro de las propuestas y quejas, y de las medidas adoptadas.
